

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntza departamentuak asteazkenean Nafarroako Museoan egingo den LHko "jardunbide egokien" jardunaldia aurkeztu du

Programan parte hartu duten proiektu irabazle hauei banatuko zaie saria: DBHI Ega, San Adriangoa eta CI Escuela de Educadores-Hezitzaile Eskola (Iruña), CI Agroforestal zentroari (Iruña) eta Tafallako CIP zentroari

Astelehena, 2017.eko maiatzak 29

Datorren asteazkenean jardunbide egokien jardunaldi bat egingo da Lanbide Heziketako Nafarroako zenbait zentro publikok nahiz pribatuk parte hartu zuten programarekin amaitzeko. Proiektuen lehiaketa-faserako zentroek proiektu bat aukeratu behar zuten zentro bakoitzean garatutako en artean, eta 12 zentro aurkeztu dira: 8, sare publikokoak eta 4, itundutako sarekoak.

Epaimahaiak, aurkeztutako proiektuak eta saria emateko izan duten zailtasuna nabarmendu ditu. Solana kontseilariak esan duenez, "Hezkuntza departamentuan oso argi daukagu eredu berri hauetan Nafarroarako nahi dugun LH Dualak ikaslearen prestakuntza-prozesuaren egokitze-beharrei erantzun behar diela LHko zentroetan, eta ikasle horien prestakuntza- eta ekoizpen-prozesuari gure Komunitateko enpresetan. Lanbide Heziketako Zerbitzuaren lehentasuna da, eta 2015-2016 ikasturtean dagoeneko teknikariz eta prestatzailez osatutako talde bat antolatu zuen, bi helbururekin: egoeraren diagnostikoa egitea eta hurrengo urteetan eman beharreko urratsei buruzko gogoeta egitea.

Hori dela eta, kontseilariak hauxe esan du: "Lanbide Heziketako Zerbitzuaren lehentasunetako bat da Lanbide Heziketako zentroetan pixkanaka metodologia aktiboak ezar daitezela bultzatzea, 2015-2016 ikasturtean dagoeneko teknikariz eta prestatzailez osatutako talde bat antolatu zuen, bi helbururekin: egoeraren diagnostikoa egitea eta hurrengo urteetan eman beharreko urratsei buruzko gogoeta egitea".

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua konplexua da, eta hura garatzeko estrategiak askotarikoak dira, esan du María Solanak. "Hezkuntza Departamentuarentzat ezinbestekoa da bizi garen garairako ikasleek prozesu horretan beraien erantzukizuna gain hartzea, zenbait hezkuntza-estrategiaren erabilerari esker. Hori dela eta, Nafarroarako Lanbide Heziketako Plan Estrategikoaren hiru ardatz nagusien barruan egingo diren ekintzak kontuan hartu dira".

Departamentuko buruarentzat "paradigma metodologikoa nahitaez aldatu behar da, zentro eta ikasle ugarik aurrez aurreko prestakuntza-ekaintzetatik LH Dual berrira jauzi egin dezaten, ordutegiaren eta prestakuntza-antolaketaren malgutasuna eskatzen duelako. Nafarroarako

nahi dugun LH Dualak ikaslearen prestakuntza-prozesuaren egokitze-beharrei erantzun behar diela LHko zentroetan, eta ikasle horien prestakuntza- eta ekoizpen-prozesuari gure Komunitateko enpresetan".

Helburuak

Departamentuak lortu nahi dituen helburuen artean honako hauek nabarmendu ditu Maria Solanak: enpresek LHko ikaslearen prestakuntzan parte-hartze handiagoa izatea; prestakuntzaren koordinazioan eta eguneratzean hobetzea; garatzeko bidean dauden teknologiak eta teknikak erabiltzea; ikaslearen prestakuntza hobetzea, heziketa-zentroetan ez dauden instalazioak eta ekipamenduak erabiltzeko aukera emanez, eta lan-jardueraren berezko balio pertsonaletan eta gizarte-balioetan prestatzea sustatzea.

Hori dela eta, kontseilariak hauxe esan du: "Lanbide Heziketako Zerbitzuaren lehentasunetako bat da Lanbide Heziketako zentroetan pixkanaka metodologia aktiboak ezar daitezela bultzatzea, 2015-2016 ikasturtean dagoeneko tekninariz eta prestatzailez osatutako talde bat antolatu zuen, bi helbururekin: egoeraren diagnostikoa egitea eta hurrengo urteetan eman beharreko urratsei buruzko gogoeta egitea".

2016-2017 ikasturte honetan metodologia aktiboak prestatzeko eta garatzeko plan bat garatu da LHko zentroen jardueran, eta kontseilariak datu hauek nabarmendu ditu:

- Hiru fasetan diseinatzen da plan bat: 2016ko abenduan aurkeztuta, ikasturteko bigarren hiruhilekorako (2017ko urtarriletik martxora) hasierako prestakuntza-fase bat aurreikusten da, eta bigarren fase bat hirugarren hiruhilekoan (2017ko martxotik maiatzera), berritzailea dena, zentroetan heziketa-proiektu zehatzak garatzeko. Prestakuntzan Nafarroako Enpresa eta Berrikuntza Zentro Europarraren (CEIN) lankidetzara dago. Hirugarren eta azken fasea lehiaketarena da.

- Hasierako fasea prestakuntza-fasea da, eta Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzan aritu dira, funtsezko ideia batean oinarritutako metodologia bat dena: ikaslea bere ikaskuntza-prozesuaren protagonista da, eta garatu behar dugu proiektu bati aurre egiten dio. Horren ondorioz, curriculum bakoitzaren berariazko gaitasun teknikoek gain, zeharkako gaitasunak ere lantzen dira, eta horiek dira langile on baten eta bikain baten arteko aldea adierazten dutenak. Gure lan-ingurune aldakorrean erabakigarria da (ikasten ikastea, egokitzea, talde-lana, konpromisoa, pertsonen arteko komunikazioa, malgutasuna, denboraren kudeaketa, lidergoa, sormena eta arazoak ebaztea, erantzukizuna eta presiopean lan egiten jakitea). Prestakuntza hau zenbait modulutan banatu zen, hala nola POIren funtsak, emozioak lantzea, elkarlaneko ikaskuntza eta teknika aplikatuak.

Hasiera batean sare publikoko nahiz itundutako sareko zentro kopuru txiki batekin hasia zen asmoa, eta lau edo bost irakasle konpromisoa hartzeko eta prestakuntza-zikloan irakasle gisa aritzeko baldintzarekin. Helburua zen baldintzak sortzea, jasotako malgutasuna hirugarren hiruhilekoan benetan garatzeko eta abian jartzeko parte hartutako zentro-taldeetako batekin. Hala ere, zentroen erantzuna espero baino handiagoa izan zen, eta beraz, hasierako eskaera murriztu eta prestakuntza 90 irakaslerentzat eta 22 zentrorentzat murriztu behar izan zen. Zentro horietatik, 17, sare publikokoak ziren (CIP Virgen del Camino, CIP Donapea, CI María Ana Sanz, CI Escuela Sanitaria-ESTNA, CI San Juan-Donibane, CI Agroforestal, CI Escuela de Educadores-Hezitzaile Eskola eta Arte Eskola, denak Iruñekoak; CIP FP Sakana LH, de Altsasu-Alsasua; IES Toki Ona BHI, Berakoa; CIP Tafalla, Tafallakoa; IES FP Lumbier, Irunberrikoa; IES Ribera del Arga, Azkoiengoa; CIP ETI, Tuterakoa; CI Burlada FP, Burlatakoa; CI Politécnico, Lizarrakoa; IES Ega, San Adriangoa) eta, sare itundukoak (CI Privado Politécnico Salesianos; CPFP María Inmaculada; CPFP Fundación Laboral de la Construcción; CI Privado Cuatrovientos; CPFP Colegio Técnico Carlos III).

- Gelan proiektuak abian jartzeko eta garatzeko fasean, prestakuntzan parte hartutako zentro guztiek lan handia egin dute, eta lan horretan, Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikarien aholkularitza eta tutoretza izan dute.

- Proiektuen lehiaketa-fasean parte hartzeko, zentro guztiek proiektu bat aukeratu behar zuten bakoitzean garatutako artean. Horrela, 12 zentro aurkeztu dira, 8, sare publikokoak (CI María Ana Sanz, CI Agroforestal, CI Escuela de Educadores-Hezitzaile Eskola, Iruñekoa; CIP Tafalla, Tafallakoa; IES FP

Lumbier, Irunberrikoa; CI Burlada FP, Burlatakoa; CIP ETI, Tuterakoa; IES Ega, San Adriángoa) eta 4, sare itundukoak (CI Privado Politécnico Salesianos; CPFP María Inmaculada; CI Privado Cuatrovientos; CPFP Colegio Técnico Carlos III). Fase hori Hezkuntza departamentuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 3ko 150/2017 Ebazpenaren bidez deitu zen, eta amaitutakoan sari hauek eman ziren:

a) Goi Mailako Heziketa Zikloetan egindako proiektuetarako, bi zentrori eman zaie ex aequo: IES Ega, San Adriangoa eta CI Escuela de Educadores-Hezitzaile Eskola, Iruñekoa.

b) Erdi Mailako Heziketa Zikloetan egindako proiektuetarako, Iruñeko CI Agroforestal zentroari eman zaio saria.

c) "Hoberen baloratutako hirugarren proiektuaren" kategorian, saria Tafallako CIP Tafalla zentroari eman zaio. Aurkeztutako proiektuan, Goi Mailako eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako eta LH bereziko ikasleei eman zaie.

Epaimahaiak adierazi du aurkeztutako proiektuen kalitatea oso handia izan dela, beraz, oso zaila izan dela aipatutako sariak nori ematea erabakitzea.

Prozesu honen amaieran jardunbide egokien jardunaldi bat dago, eta datorren maiatzaren 31rako aurreikusita dago. Nafarroako Museoko ekitaldi-aretoan izango da, 9:00etatik aurrera, eta hizlari gisa, Daniel Irazola, Durangoko Maristak ikastetxeko zuzendaria arituko da. Gai hau azalduko du: "Ebaluazioa erronketan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntzaren testuinguruan: erronken diseinua eta sekuentzia, curriculumak betetzea eta ebaluazioa". Halaber, aurretik aipatutako saria merezi duten heziketa-proiektuak azalduko dira.

Datorren 2017-2018 ikasturterako lan-aurreikuspenen arabera, lana hiru mailen inguruan garatuko da:

- I. mailan, POI prestakuntza egiten jarraituko zaio nahi duena irakasleari. Maila honetan, metodologia honetan prestatuta dagoen irakaslerik oraindik ez dagoen zentroetan, baldintza bera bete beharko dela proposatu da (ziklo bereko 4 edo 5 irakasle, metodologia hori zentroko talderen batekin prestakuntza jasotzen duen ikasturte berean aplikatzeko konpromisoarekin), edo prestatuta dauden irakasleak badituzte, POIn prestatutako irakaslerik ez dagoen arlo profesionaletako zikloko irakasleak badira.

- II. mailan, metodologia horiek garatzen eta aplikatzen esperientziarik handiena duten zentroetako irakaslez eta Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikariz osatutako talde bat aukeratuta, metodologia hauek berriki erabiltzen hasi diren zentro eta irakasleen jardueraren laguntza- eta jarraipen-lana egingo da.

- III. mailan, irakaslez eta teknikariz osatutako talde berak, metodologia hori Lanbide Heziketako zentroen eguneroko bizitzan pixkanaka ezartzeko eskatzen den ikerketa eta sakontze-lana jarraituko dute. Paradigma metodologiko berria finkatu nahi dugu gure zentroetan. Halaber, eragin biderkatzailea lortzeko aukera ematen duen lana hasiko da. Horrela, heziketa-zikloetako curriculumak, moduluen programak, irakasleen ordutegiak, zentroetako baldintza fisikoak eta bestelakoak aztertzen hasi dira.

Hau da, kontua da paradigma metodologikoko aldaketa baten oinarriak aztertzea eta ezartzea, egitura- eta antolaketa-aldaketa batekin batera LHko zentroetan. Eta aurrerapen handiena antzematen den zentroetatik hasiko gara.